

Markan berrikuntza, berrikuntzarako marka

2015/11/27

"Markan berrikuntza, berrikuntzarako marka" MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, Innobasque-k eta AZK-k elkarlanean antolatutako profesonalentzako lan-jardunalida da.

Bilboko Dweek jardueraren esparruan antolatuta dago eta helburua, branding-aren eremuan gertatzen ari diren berrikuntzak erakustea da, baita ere markaren ekarpena berrikuntza-faktore gisa aztertzea.

Jardunaldia, bihar, azaroak 27, 09:00etatik 14:45etara izango da Bilbao Berrikuntza Faktorian.



EGITARUA

TAILERRA

Munduko markarik balioetsiena, Apple, berriz diseinatuko dugu, honelako galderetatik abiatuta: *Zer da markaren balioa? Logotipoa? Produktuak edo zerbitzuak? Merkatuko eta burtsako aukerak? Edo pertsonak? Zergatik da branding berrikuntzarako aktibo bat?* Hauek dira lagunduko dituzten adituek:

- Susana Ribó, NU Comunicación
- Ander Soriano, Durero
- José Luis Sagarduy, Herrero y Asociados
- Asier Ibarrondo, Coonic
- Txelu Lekanda, IK4
- Patxi Alija, Adimen
- Daniel Miguelez, AZK
- Alberto Bokos eta Blanca Pardo, Innobasque

MAHAI-INGURUA

3 euskal erakundek hauek berrikuntza arloan beren marka-garapena partekatuko dute hainbat ikuspegitatik:

- *Zientziatik*: Cristina Jueas, Euskampus
- *Teknologiatik*: Cristina Alberdi, Tecnalia
- *Merkatutik*: Andrea Naverán, Euskaltel